

7. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaren erronkak.

- 7.1. Ahozkoa eta idatzizkoaren dikotomia hizkuntzen didaktikan.
- 7.2. Ahozkoa: irakaskuntza objektua, irakaskuntza baliabidea eta harremanetarako adierazpidea.
- 7.3. Ahozkoaren meta-mintzairaz.
- 7.4. Ahozko formala edo hizketa? Generoan oinarritutako eredu didaktikoa.
- 7.5. Ahozko generoak aztergai: debatea, narrazioa, azalpena, e.a.
- 7.6. Ahozkoaren ebaluaketa.
- 7.7. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza eta euskararen biziberritzea.
- 7.8. Ahozko irakaskuntza eta hiztun berriak: erronka didaktikoa.

7.1. Ahozkoa eta idatzizkoaren dikotomia hizkuntzen didaktikan.

- Ahozkoa /idatzizkoa: zertan elkarren osagarri? Zertan bereizgarri?
- Bata bestea ulertzeko ezinbesteko dira. Harremanetan daude eguneroko hizkuntzaren erabileran behar ditugu eta *berdindu* beharko genituzke norma eta akats, irakaspen eta ebaluaketa mailan, **beti ere batean eta bestean dituzten ezaugarriak kontuan hartuta**. Eskubide eta betebeharreran.
- Aurreiritziak:
 - Ahozkoa= *akatsa, kaosa, ez du araurik* baina aldi berean *naturala*
 - Ahozkoa=solasa
 - Idatzizkoa= akademikoa, *norma*
- Ahozkoa:
 - Dibertsoa da oso.
 - Antolaketa dago. Oso landua (*neurtua, kalkulatu*) izan daiteke.
 - Testuak ekoizten dira: testu generoen ikuspegia:
 - Arau diskurtsibo eta testualak (komunikazio egoerarekin lotua -giza taldea, helburuak, lekua-), diskurtsiboak, sintaktikoak, morfologikoak, fonetikoak, e.a.
 - Idatzizkoarekiko ezaugarri propioak (adb.:ahozkera).
 - Analisi kategoriak ezberdinak: hitza, parrafoa vs periodo diskurtsiboa, pausak...
- Ahozkoaren ezaugarriak ezin dira orokortu: testu generoaren, egoera komunikatiboaren formaltasun mailaren eta helburuaren, elkartrukean ari direnen harremanaren, produkzio edo euskarri motaren (audioa, bideoa, bertatik bertarakoa...), etabar luze baten arabera ezaugarri ezberdinak aurkituko ditugu.

7.1. Ahozkoa eta idatzizkoaren dikotomia hizkuntzen didaktikan.

- Hizkuntzaren errepresentazioak garrantzi handia ahozkoan :
 - Dugun kontzepzioa ez da neutroa, eta idatzizkoak oso baldintzatua (hizkuntzalariek barne)
 - Horrek ekarri du ahozkoaren hainbat ezaugarri gaitzestea: errepikapenak, zatikako eraikuntzak, askoren arteko ekoizpenak...
 - Jokabide normatiboari gehiegizko garrantzia. **Zein norma? Zein gramatika? Zein arau?**
 - Ahozkoaren errepresentazioa: *pobrea, akastuna, sintaxi okerra, errepikakorra, eskoriak...* azterketa enpirikoen falta eta hizkuntzaren funtzionamendu errearen ez-ezagutza.
 - Ahozkoan akatsak zuzentzeko aurrera jo behar da, ezabatzea ezinezkoa da eta.
- Ahozkoaren ezaugarriak:
 - Historikoki:
 - “kultura” hizkuntzen ahozkoaren deskribapena berantiarra.
 - Konpetentzia linguistikoa bilatzea lehentasun izan da (Chomsky).
- ONDOREN AHOZKOAREN IZAERA ETA FUNTZIONAMENDUAREN BEREZITASUNEN ZENBAIT ADIBIDE IKUSIKO DITUGU.

1. Adibide multzoa: Larringan & Idiazabal (2008): Ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta, Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, Bilbo, Iker 19-, 29-38.

(/) baakit askotan / galderekin hastia zuzenean ez dela izaten erraza orduan ba / nik eh aurrena // baaa 10 minutuz eo gutxiagoz ba gauza txiki bat // esango dizuet gauza txiki bat kontatuko dizuet // eta // gauza txiki hori kontatuta geo ba ikusiko dea aterako det halako ondoriyo bat halako moraleja txiki bat aterako det / eta handikan aurrea ba pixka bat zuei utziko dizuet hitza ezta? /// esango nuke // nere iritziz / mundu hontan dena sekretua da eo garrantzia duen / dana o gehiena sekretua da // eta jakin egin behar dugu sekretu horiyeke geureganatzen da sekretu horiyeke asmatzen // eta hoi erakusteko / hain zuzen ere dena sekretua dela erakusteko nik orain hemen jarriko dizuet / kanta oso txikiya // seguruasko ba ezagutuko duzuen ez dakit ezagutzen duzen kanta txiki bat // euskaraz // gutxi gorabehera esaten duena .. (B.A.)

(/) badakit askotan galderekin hastea zuzenean ez dela izaten erraza; orduan, aurrena, gauza txiki bat esango dizuet, 10 minutuz edo gutxiagoz, eta ondoren halako ondorio edo moraleja bat aterako det. Gero zuei utziko dizuet hitza. Nere iritziz mundu honetan dena sekretua da, garrantzia duen / dena da sekretua; halatan jakin egin behar dugu sekretu horiyeke asmatzen eta geureganatzen. Eta horretarako, hots, dena sekretua dela erakusteko nik orain kanta txiki bat jarriko dizuet euskaraz; ez dakit ezagutzen duzen, seguruasko bai. Gutxi gorabehera honela esaten du ..

2. Adibide multzoa: euskarazko ikerketen emaitzak ahozko solasaren gainean (Larringan & Alegria, 2006): errutinazko esamolde metakomunikatiboak lagunarteko hizkeran

- **1. Adib.:**

A: aurrea/ aurrea/// (1'') [1]
B: aurrera
C: se puede:? [2]
A: bai bai bai
B: °(qué hay?)°/ [3]
C: kaixo/ gabon/
A: kaixo/
D: gabon/
C: zer →
D: hementxe / amonari → ba:i/ konpañia egiten
C: goxo-goxo z-/ goxo-goxo zaudezte/
eh?/

[1] Atea jo dute eta zakurrak zaunka hasi dira. [2] Esnezalea, atea erdi irekita, barrura begira.

[3] Ateraino hurbiltzen da.

- **2. Adib.:**

A: hok/ zer eitten due hemen ↓/ hok ↓
B: hara hara hara! →/// (2'')
C: hara Maribel! ↑//
A: ((Elene)) [1] ere bai ↑/// (1'')
C: aiba! ↑/// (1'')
A: bue:no ↓/ hirurok gabiltze etorrira/ Leire ikusi deu/// (XX)→

[1] Haurrarenatik dio.

3. Adibide multzoa: kohesioa ahozko narrazioan (Garcia Azkoaga & Diaz de Gereñu, 2009)

- **1. Adib. helburu estetiko/ludikoarekin kohesioaren eraikuntza uztartua; dimentsio interaktiboa modu agerian jorratua:**
 - (...) noizpait azaldu zan txori bat / txori txiki txiki bat / saltoka! ttan ttan! saltoka ttan! saltoka ttan! ta papoa! kolore gorria! hantxe zijoan ttan ttan! gorri gorri / ttan ttan! gorri gorri / BERE IZENA BADA KIZUE ZEIN DAN NOSKI!
 - EN: XXX
 -EZ
 -BAI
 - RB:EZ? TTANTTANGORRIA! EZAGUTZEN DEZUTE TTANTTANGORRIA?
 - EN: BA:.....:I!
 - RB: mutikoak ttanttangorria ikusi (...) **(Rai Bueno kontalaria 5-7 urte bitarteko haurrekin)**
- **2. Adib. Errepikapena kohesioarekin; mintzairaren alderdi sortzailea:**
 - (...) sartu ziren gure herrian / **hiru gizon** [...] **hiru hiruak** elkartu eta **hiruak** jarraitu zuten bidea! esaten da: / **hiru hauek** / diru horrekin / gure herrian / lurak erosi zituztela (...) **(Koldo Amestoy kontalaria, entzule helduak)**

3. Adibide multzoa: kohesioa ahozko narrazioan (Garcia Azkoaga & Diaz de Gereñu, 2009)

- **3. Adib. Elementu askotarikoen erabilera kohesioaren eraikuntzan:**
 - “(...) garai hortan izan zen ere hiru andrek izan tzutela / nahiko / bizi hortan / gure herriko bizian parte handia hartu zutela / lau / hiru andre / hiru ma [45'] ziren / hm! (abestuz) **MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN PREMU NINTZANEZ / MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN PREMU NINTZANEZ / PREMU PREMU NINTZELA BAINAN ETXERIK EZ ETXERIK EZ / MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN / POLITA NINTZANEZ / MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN POLITA NINTZANEZ / POLIT POLITA NINTZELA BAINAN / HUM! LARRUA BELTZ LARRUA BELTZ / bo! ma / ma / hiru (panderoari kolpea) ma ma horietarik bat zen Maiena! (7) Maiena / igande goiza zen (...) (kriskitin) hori! Maialeren gauza / en fin! bigarren ma [49'] izan da: / au e Margaita! / [...] hirugarren ma [55'] / Maialen da! (9) ni nire amona / amona Maialen! bueno hor piska bat emango o sartuko naiz nire intimita / hau da nire bizian! intimitatea ezta! intimitatea! bakarrik nere amona Maialen nere aitona e / Manuren ze a emaztea da! Manu / eskulangilea delako / Manu hargiña da! eta: (...) hori zen hirugarren ma! [63'] (...)” (**Koldo Amestoy kontalaria, entzule helduak**)**

7.1. Ahozkoa eta idatzizkoaren dikotomia hizkuntzen didaktikan.

- Ikerketen emaitzak. Idatzizkoan editatu aurretik testuek aurre-testuak daukate, ahozkoan berdin:
 - Erritmoen antolaketa garrantzitsua: sintagmen simetria, alderantzizko simetriak, estilo figura ez kontzienteak... PRODUKZIO UNITATEAK DISPOSIZIO FORMAL HANDITAN EZARTZEN DIRA, PERPAUSETIK GORA, adb: “erosiko dit arkumetxo bat arkumetxo bat erosiko dit”
 - Pertzepzio prozesua erabat ezberdina da idatziarekiko:
 - sintagma hitzaren gainetik/ leihokako eraikuntzak (Luzatti, 2004)
 - berreraikitzeak garrantzi handia: zenbaki eta izen propioekin arazoak adibide.
 - entzulearen interbentzioa handiagoa da.
 - Gramatikaz dugun ezagutza: ahozkoaren azterketen ondoko ezagutzak aldatu egin du:
 - Tonoa, pausa, indarra, e.a.: taldekatze eta zatikatzeak, ...
 - Unitate linguistikoen funtzio eta konfigurazioak ezberdinak, antolaketa bereziak (zerrenda bidezkoak), errepikapenak (borondatezkoak edo ez)...
 - Generoaren eta berbazko ekintza jakinaren araberrako ekoizpenak: makroegiturak, mikroegiturak, kortesia-hatsarreak, hitz-txanden egituraketa, interakzio markoaren kukeaketa, e.a.

7.1. Ahozkoa eta idatzizkoaren dikotomia hizkuntzen didaktikan.

- Hiztun batek produkzio heterogeneoa du ahozkoan: frantsesez “ne”-aren kasua/ hiztun bakarrak erregistro askotarikoak (Gadet, 2002)
- Kontzeptuak berriro definitzeko beharra: esaldia, koordinazioa, errorea edo akatsa...
- Serio hartu behar lehenengo begiradan produkzio arazoak iruditzen zaizkigunak. Hizkuntzaren funtzionamenduaren erakusgarri izan daitezke. Adibidez:
 - **e** partikularen agerpena gabeziaren edo kontrolaren adierazle izan daiteke.
 - **Errepikapenak**: errepikapen eta erredundantzia guztiak ez dira maila eta garrantzi berekoak. Batzuek holako edo halako egoera eta testu generotan jarduterakoan mintzaira edo eta komunikazio ahul baten lagin nabarmenak dira. Beste batzuk ez, errepikapen horien balio eta funtzioa errepika gordin horien azpian dagoen esanahia baino urrunago baitoa. Besteak beste, errepikapena ahozko hizkuntzaren nolakotasuna definitzeko elementua izan daiteke.
 - **Bueno ba, beitu**, e.a.

7.1. Ahozkoa eta idatzizkoaren dikotomia hizkuntzen didaktikan.

- **AHOZKOA OBJEKTO HETEROGENEOA DELA ONARTU ETA HIZKUNTZAZ DUGUN EZAGUTZA BERRIZTUKO DA.**
- **AHOZKOAREN AZTERKETA EZ DA AURRETIK DAUKAGUN HIZKUNTZAREN ANALISIARI AHOZKOAREN EZAUGARRI BATZUK GEHITZEA, ANALISI PRINTZIPIOAK BEGIRATZEA BAINO.**
- **TESTU GENEROAREN IKUSPEGIA BEHARREZKOA DA.**
- **NOLA UZTARTU BI ADIERAZPIDEAK?**

7.2.Ahozkoa: irakaskuntza objektua, irakaskuntza baliabidea eta harremanetarako adierazpidea.

Azken hamarkadetan ahozko hizkuntzaren irakaskuntza **xede nagusi** bihurtu da askotariko xedapen eta curriculumetan, baina areago gurea bezalako hizkuntza gutxituen irakaskuntzan (Idiazabal, 2012).

Ahozkoaren helburuak finkatzeko konplexutasuna. Nonnon-ek dioenez (2011), ahozkoa, hizkuntzaren didaktikaren bestelako alderdien dilemen sustatzailea da.


AHOZKOA IRAKASKUNTZA OBJEKTU ESPLIZITUA. 3 EGINKIZUN NAGUSI ESKOLAN (Garcia Azkoaga, 2015):

- IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDEA
- HARREMANETARAKO TRESNA
- AHOZKOAREN GARDENTASUNA/ATZEMANGAITASUNA

DENEAN AURKITZEN DUGUNEZ: AHOZKOAREN GARDENTASUNA/ATZEMANGAITASUNA (Nonnon, 2016)

Horrez gain, eskolan euskaraz jarduteak euskararen aldeko jarrera erakusten du. **Laugarren funtzioa?**

7.2.Ahozkoa: irakaskuntza objektua, irakaskuntza baliabidea eta harremanetarako adierazpidea.



7.2.Ahozkoa: irakaskuntza objektua, irakaskuntza baliabidea eta harremanetarako adierazpidea.

AHOZKOA KONPETENTZIA/GAITASUN BEREGAINA IZATERA PASA DA, LEHENTASUNEZKOA. ARE GEHIAGO HIZKUNTZA GUTXITUEN KASUAN

EGUN AHOZKOA LANTZEKO ZAILTASUNUNETAKO BATZUK:

- IDEOLOGIKOAK ETA METODOLOGIKOAK (Dupont & Grandaty, 2017; Zabala, 2018; Olasagarre & Mugerza, 2015)
- AHOZKOAREN KONPLEXUTASUNAZ OHARTU IZANA (MODALITATE, HELBURU ETA INDIKADORE ANITZAK)
- NORMAREN ARAZOA : DESKRIPZIOAREN ETA NORMAREN ARTEKO TENTSIOAK GAINDITU GABE
- LORPENAK ASKO DIREN ARREN, GABEZI HANDIAK DAUDE, BAIN IKASLEEN LORPEN MAILETAN (ETA HAUEK NEURTZERAKOAN) ETA BAI IRAKASLEEN PRESTAKUNTZAN.
- EGONKORTZEA BEHAR DA ETA FORMAZIOAREN PROBLEMATIKARI HELTZEA ESKATZEN DU.

koherentzia curricularra ez dago bakarrik EDUKIETAN, baizik eta METODOLOGIA AUKERETAN, EBALUAZIOAN, IRAKASLEEN KALITATEAN, PROGRESIOAN, E.A. (Gauthier, 2016)

7.2.Ahozkoa: irakaskuntza objektua, irakaskuntza baliabidea eta harremanetarako adierazpidea.

- **Ahozkoaren irakaskuntzaren arazoak:**
 - **Izaera praktikoa duten arazoak**
 - Ikasle guztiek nola parte hartu
 - Bitarteko teknikoak (bideo, grabagailuak,...) erraz erabiltzeko zailtasunak
 - Ebaluaketa oso zaila suertatzen da. Eta ebaluatzen ez denak ez du baliorik irakaskuntzan.

7.2. Ahozkoa: irakaskuntza objektua, irakaskuntza baliabidea eta harremanetarako adierazpidea.

- **Ahozkoaren irakaskuntzaren arazoak:**
 - **Izaera epistemologikoa duten arazoak**
 - Erakutsi nahi den ezaguera (erabilera) -debatea kasurako- deskribatu gabe dago; eta euskaraz gutxiago.
 - Nolanahi ere, deskribapen ekintza ez da didaktika ekintza.
 - Didaktika interbentzio ekintza da, hizkuntza ahalmenak, ahozko formalak, ez dira inpregnazioz ikasten ez eta ere erabilerarako aukera hutsez (ekinaren ekinaz).
 - Didaktikaren eskeari erantzun beharrak, ordea, deskribapen desbideratuak (aldeakargak, didaktikakeriak) ekar ditzake; egitura bortxatua duten generoak,...
 - Deskribapena eredu (preskripzio) bihur daiteke;
 - Irakasgaia eta irakasbidea ahoz gauzatzen direnez (interlokuzioz), kontestua oso haintzat hartzea (berkontestualizatzea, esplizitatzea) ezinbestekoa da.

7.3. Ahozkoaren meta-mintzairaz.

- Ahozkoa eta idatzizkoa elkarren osagarri, bai irudikapenaren aldetik eta baita metodologikoki eta baliabideen aldetik ere beharrezkoa da.
- Ikerketa batzuen arabera, irakasleen %90 ahozkoa lantzearen aldekoa izan arren, ahozkoaren irudikapena zaila dela erakusten dute eta idatziaren mendekoa oraindik, nahiz eta; ahozko praktiken sedimentazioa.
- Dikotomia hori presente dago ikasleengan ere.
 - Nozio lausoa da beraiantzat ere, izaeragatik beragatik eta batez ere irakaskuntza praktika jakinen ondorioz.
 - Irudikapenik ez, lekurik ez, metahizkuntzarik ere ez.
 - Ikasleengan ahozkoa lantzerakoan kontrako jarrerak ere aurki ditzakegu (ikus Rispaill, 1998): *lotsatu egiten naiz, irakasleari "erantzun" egiten zaio; hobe da ez erantzutea badaezpada; ikaskideengatik epaitua sentitzen naiz...idatziak "ziurtasuna, distantzia" ematen du.*

Zein terminu, nozio, erabiltzen dugu ahozkoaz berba egiteko eskolan?

7.4. Ahozko formala edo hizketa? Generoan oinarritutako eredu didaktikoa.

Eskolari haziz joan zaio, beraz, ikasleak ahoz jarduteko prestatzeko eskaera.

Hitz egiteko ahalmenari berari baino, eskari horrek erreferentzia egiten dio jendurreko ahozko elkartruke egoeretan –eskolari gehiagotutako generotan- eragikortasunez jarduteari.

Ikuspegi psikologikotik, jendaurrean hizketan jakiteak garapen maila handia suposatzen du, bi alderditatik: a) idazten ikasteak suposatzen duen besteko sistema psikikoen berrantolaketa; eta b) eskolako hizkera menderatzea. Ikasle askok ez dute garapen maila hori lortzen etxeko hezkuntzan eta eskolak hartu beharra du heziketa hori bere gain, eskolan tradizioz hobetsi diren hizkuntza erabilera formen araberako juzkuak sahiestuz (Miras, 1984; Stubbs, 1984).

7.4. Ahozko formala edo hizketa? Generoan oinarritutako eredu didaktikoa.

Irakaslearen lana ahalmen psikikoen berrantolaketa hori ikaslearekin batera eraikitzea da eta, hala gertatu dadin, ikaslearentzako baliagarri diren lanabesak bereganatu ditzan egoerak sortzea dagokio (Schneuwly, 2007).

Izan ere, berrantolaketa ez da hiztun arruntarengan berez gertatzen, ez eta idatziaren trebatzearekin garatzen ere; eta, beraz, interbentzio didaktikoa beharrezkoa da.

7.5. Ahozko generoak aztergai: debatea, narrazioa, azalpena, e.a.

- **Genero formalak zer dira? Zeintzuk irakatsi?**
 - Genero formalak deritzaie jendaurrean gauzatzen diren hizkuntza jardunei. Jendaurrean esaten denean, instituzio publikoa aipatu nahi da (zentzu zabalean, jakina). Bat-batekotasunetik aldegiten da, edo profesionaltasuna eskatzen duten jardunak hartzen dira kontuan.
 - Eskolan, bereziki, landu izan diren genero formal edo publikoak hauek dira: aurkezpen ezberdinak, objektu, eginkizun, saio-jaialdi etabarrenak, debatea edo eztabaida bideratua (gidatua), irratiz zabaltzeko (grabaturiko) elkarrizketa, ozenki irakurtzea, besteei irakurtzea (ez da deklamazioa nahi-ta-ez), mintzaldia, ipuin kontaketa, antzerkia, antzerki irakurria, irradi eta telebistarako saio ezberdinak: agendak, berrien emankizunak, elkarrizketak, ...

7.5. Ahozko generoak aztergai: debatea, narrazioa, azalpena, e.a.

- **Zergatik irakatsi genero formalak euskaraz?**
 - Eskolaren izaerarekin bat dator genero formalak irakastea, eskola instituzio formala delako. Alegia, irakasteko aurrez prestatu behar da eta nekez izango da bat-batekoa aurrez prestatzen baldin bada.
 - Ikasleen ezberdintasun sozialak, nahiz kultura mailakoak leuntzeko, gaindituko ez badira ere, hizkuntza erabilera landuak beharrezkoagoak dira.

7.5. Ahozko generoak aztergai: debatea, narrazioa, azalpena, e.a.

- **Zergatik irakatsi genero formalak euskaraz?**
 - Ahozkoaren irakaskuntza lehen hizkuntza denean, genero formaletara bideratzea proposatu izan ohi da, norberaren ahozko bat-batekoa, ahozko arrunta, ahozko solasa irakatsi beharrik ez dagoelako. Bizitzearekin batera ikasten da ahoz hitzegiten eta bizitzako ekintza ezberdinak garatzen diren heinean horietarako beharrezko diren berbaldiak ere garatu(ikasi) egiten dira. Mota ezberdinetako solasak eten gabe doaz garatzen bizitzearekin batera, ekintza ezberdinei erantzun nahi zaien heinean hizkuntza forma ezberdinak garatuko dira.

7.5. Ahozko generoak aztergai: debatea, narrazioa, azalpena, e.a.

- **Zergatik irakatsi genero formalak euskaraz?**
 - Eskolan erabiltzen dira zenbait ahozko genero: aurkezpena, hitzaldia, elkarrizketa,... ; eskolaz kanpoko zenbait erabilera egokitzea interesgarria ikusi dute Dolz & Schneuwlyk, esaterako, debate gidatua, jakintza gehitzeko egiten diren elkarrizketak, irratirako elkarrizketak,... komunikagarritasun, zentzu gehiago (ikasteko tentsioa, gogoa), gizabalioa duten erabilerak bultzatzen dira, (Vigotsky-ren garapenaren urreko eremua)
 - Euskara, ordea, ikasle gehienentzat bigarren hizkuntza da, beraz, ez da ziurra ahozko bat-batekoa nahikoa garatua izango dutenik ikasle askok. Horregatik, behar bada, beste bigarren hizkuntzen irakaskuntzan egiten den moduan, bat-bateko egoerak, saio arruntak eta egoera ez formalak ere bultzatu beharko lirake

7.5. Debatea irakasgai

Debatea edo jendaurreko eztabaida gidatua

- Eztabaidagarria den gai bat
- partaideen artean ikuspuntu kontrajarriak
- Kontestu publikoan
- Moderadore edo gidari batek zuzendua
- Helburu ezberdinak: erabaki (negoziatu) bat hartu, gaia arrazoituz sakondu, erabaki bat hartu behar duenari lagundu, entzuleak libertitu, ...

7.5. Debatea irakasgai

Debatearen irakaskuntzan kontuan hartzekoak:

- Edukia edo gaiaren garrantzia: interesa duena baina ez dramatikoegia
- Iritzi kontrajarriak dituzten partaideak
- Moderatzailearen papera ongi prestatua behar du izan (irakaslea?)

Zer dakite ikasleek debateari buruz.

- Aurre-ezagutzak nola neurtu: aurretestuak edo aurrekoizpenak (galbaheak)
- Apendizaiak nola ebaluatu: ebaluaketa hezitzailea, agiribidezko ebaluaketa

7.5. Debatea irakasgai

Zer irakatsi behar da:

- Besteak entzuten. Entzutea beharrezkoa da partze zentzudunak egiteko.
- Eztabaidan argudioak, arrazoiak dira hizpide. Ez da kontaketa edo zerbaiten deskribapena. Norberaren iritzia ematea ere ez da nahikoa. Argudiobidez eraiki egin behar da berbaldia.
- Partehartze edo interbentzio bakoitzaren ezaugarriak:
 - eztabaidagaiari buruzko aldeko edo kontrako ikuspuntua
 - aurrez esandakoari buruzko jarreraren berbazko gauzatzea: adostasuna bada arrazoiak eman edo ez,
 - Zein bitarteko erabili bere jarrera eta ikuspuntua lotzeko: irudi bat, adibide bat, gertaera bat aipatu, legeak (naturalak, gizamailakoak, logikarenak, zuzenbidezkoak, etab.), bere esperientzia, kausa-ondorioa, esangarriasuna, etab.
- Jarrera edo ikuspuntu bat arrazoi bat baino gehiagok eutsi dezake. Eztabaida-partaideak egiten duen aukera kontestuaren baitan (nork zer nori nola eta zein momentutan esaten dion) gauzatu behar da entzuleek ohartzen duten balioa eta indarra eztabaidatzaileak nahi duen modukoak izan daitezen.

7.5. Debatea irakasgai

Argudiaketarako baliabideak

- Ezeztapena, kontrajartzen jakitea. Bitarteko nagusia. Bide ezberdinak: arrazoia eman eta gero kendu.
- Parte hartzeak modalizatu egin behar dira. Ezeztapena eraso da beti, nahi dena esan eta onartua izan nahi bada lehundu egin beharko da esapidea.
- Berformulatzeko jakin behar da, adierazpenak egin ahal izteko eta horien ulermena segurtatzeko. Askotan beste iturriak aipatzen dira.
- Debatea egituratzeko hainbat antolatzaile edo markatzaile: egituratzeko, partehartzeak eta gaiak bideratzeko, berformulatzeko, kontrajartzeko, negoziatzeko, ...

7.5. Debatea irakasgai

Moderatzailea, eztabaidaren erregulatzailea. Funtzioak :

- Eginkizun sozialak (agurtu, partaideak aurkeztu, ...);
- Edukiaren bideratzea: Eztabaidagaia eta eremua aurkeztuz debatea ireki; eztabaida itxi (partaideei azken hitza eman ez edo), debatea egituratu eta berau zehazten du;(eztabaidatu) aurreratu dena laburbiltzen du; behar denean berbideratu, gai berriak luzatu.
- Partaide eta entzuleen arteko artekatzea
- Debatearen eta partaideen erregulatzailerik egituratzaile. (Partaide bakoitzak irudikatu beharreko errola)

7.4. Debatea irakasgai

DEBATE BATEN BEHAKETA/AZTERKETA FITXA

- **Ezaugarri orokorrak:**
 - izenburua,
 - nor parte hartzen du,
 - non gauzatzen da
- **Edukia eta bere kudeaketa**
 - Gai nagusia:
 - Azpiguaiak:
 - Moderatzaileak proposatutako azpiguaiak:
 - Partaideen proposamenak:
 - Gai berriak proposatzeko/gaineratzeko baliabideak:
 - hizkuntzazkoak,
 - bestelakoak
 - Gaien arteko loturak markatzeko baliabideak:
 - Gaiak berraitatzeko baliabideak:
 - Gaiak amaitu eta aldatzeko baliabideak:

7.5. Debatea irakasgai

- **Moderatzailea:**
 - Funtzioak:
 - Bitartekoak
- **Ahozkoaren sintaxia. Enuntziatu motak**
 - Hitz txandak betetzea
 - Hitz hartze motak
 - Errepikapenak
 - Partikula euskarriak (diskurtso markatzaileak)
 - Etenak eta berrartzeak enuntziatu berean
 - berformulazioak
 - hitz emateak
 - ezeztapenak
 - baieztapenak
 - kontu hartzeak (bestearen hitzak eta bestearen estatusa)
 - onartzea
 - forma hipotetikoak
 - adibideak, kasuak, ekartzeko
 - generalizazioak

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa.

- 60/70. hamarkadatik aurrera ikuspegi komunikatiboa, erabileraren garrantzia hedatu: egoeren aniztasuna.
- Ikasleen gaitasun errealak hobeto ezagutzeko ahalegina beharrezkoa; eskolaren egunerokotasunerako praktika berrien sormena beharrezkoa; proposamen sendoen urritasuna nabaritzen.
- Eraldaketa pedagogikoa islatua: curriculum eskari berrietan, hizkuntzen marko europearrean, gizartearen eskari berriak, e.a...
- Ikasleak ez du mintzaira bat, berba egiteko modu bakarra, helduona baino murriztagoa izan arren. Mintzairaren kuspegi monolitikoa hautsi beharra; ahozkoa/idatzia elkarreraginean.
- Prestakuntzaren aldetik, ikasleen gaitasunak ebaluatzeko prestakuntza eskatzen dute irakasleek (De Pietro et al., 2003)

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

- Idatzian bezala, irakatsi dena ebaluatu behar da.
- Landu den genero jakin baten arabera.
- Ikaslearen parte hartzea ebalualuazioan.

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

- **ARAZOAK:**
 - Erreferentzi teoriko ahulak
 - Helburu anitzak
 - Baliabideak
- **AHOZKOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK:**
 - Entzun eta ulertzeko gaitasuna
 - Posturak eta gorputzaren kontrola
 - Zenbait hizkuntza forma
- **NORBANAKOAREN ADIERAZKORTASUNA**
 - Hitz egiteko ausardia (lotsa galtzea)
 - Eroso sentitzea
 - Emozioa erabili esaten dena indartzeko
 - Solaskidea errespetatu
 - Hitzekin jolastu
 - Antzeztu

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

- AHOZKOA ELKARRERAGINEAN EBALUATZEKO
 - IRAKASLEENTZAT
 - Irizpideak (jokoaren arauak) argi utzi
 - Lankideekin aztertu eginkizunak eta ikasleen aurrepenak
 - Ahozkoan landu diren atalak ohartzeko begiratu: ulermena, zehaztasuna
 - Gurasoekin eta beste lankideekin elkar eragiten ikasi
 - IKASLEENTZAT
 - Aurrera egiteko irizpideak eta arauak aurkitu
 - Eskolak eskatzen duena jakiteko kontuan izan (ohartu) ohiko balorazioak
 - Eskolan ikasi diren baliabideak erabili
 - Norbere burua autorregulatzen ikasi diren trebeziei esker
 - GURASOENTZAT
 - Irakasleekin aztertu bere seme-alaben eskola egoera orokorra
 - Nabaritzen diren behin behineko ahulezietatik ondorioak atera
 - Aurrerapenak jakin arazi

7.5. Ahozkoaren ebaluaketa

- AHOZKO PUBLIKOAREN EBALUAZIOA HEZITZAILEA? AGIRI BIDEZKOA?
 - EBALUAZIO HEZITZAILEA:
 - Irizpideak erabiliz BEHATU
 - FEEDBACK a sortu
 - IRAKASKUNTZA egokitu
 - AUTOERREGULAZIOA bultzatu

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

- AGIRI BIDEZKOA EBALUAZIOA (SUMATIBOA)
ZUHUR IBILI!!!
 - Ahozko behaketen ondoren notak emateko orduan kontuz!!!
 - ZERGATIK IBILI BEHAR DA ZUHUR AHOZKO PUBLIKOA KALIFIKAZIO BIDEZ EBALUATZEKO ORDUAN?
 - Irakats saioak (SD-ak) ez dira gaitasun zehatzak lortzeko helburuekin egiten
 - Debatea edo solasa genero interaktiboa dira
 - Ikasle batzuk ezintasunak dituzte jendaurrean hitz egiteko
 - Ahozko gaitasunei buruz dakiguna mugatua da
 - Irakaskuntza guztiak ez du agiri baten arabera izan behar

7.6. **Ariketa gisa**: ahozkoa ebaluatzeko proposamen bat iruzkintzea eskatzen zaizu kritikoki. Honela dio:

Ahozkoa ebaluatzeko aurrez eraikitako eredurik ez dugu. Lantaldeko iritzi eta ekarpenetan ondorengo hauek baloratzea jo da interesgarritzat:

- **Jariakortasuna** (\approx **erraztasuna**)
- **Zehaztasuna**
- **Ulergarritasuna**

*Hauekin batera, haur eta gazteen hizkeraren gaian (eta berriki euskararen kalitateaz Amonarriz, Egaña eta Gartziak eginiko lanean) “**adierazkortasuna**” ere askotan aipatzen da (hizkera espresiboa, indar komunikatiboa duena). Azken hau ere kontuan hartzea proposatzen dugu.*

7.6. Lau aldagai hauetako bakoitzerako eskala simple bat erabiltzea proposatzen da, bakoitzean 1etik 5erako puntuazio bat emanaz. Ahozko ebaluazioaren emaitza lau aldagai hauen emaitzen batezbestekoa litzateke. **Behatu eta hausnartu taldeka ebaluazio proposamen hau SDaren metodologian erabiltzen denarekin erkatuz:**

A).- Jariakortasuna (\approx erraztasuna):

1 oso handia	2 handia	3 nahikoa	4 kaxkarra	5 oso kaxkarra
--------------------	-------------	--------------	---------------	----------------------

B).- Zehaztasuna:

1 oso handia	2 handia	3 nahikoa	4 kaxkarra	5 oso kaxkarra
--------------------	-------------	--------------	---------------	----------------------

C).- Ulegarritasuna:

1 oso handia	2 handia	3 nahikoa	4 kaxkarra	5 oso kaxkarra
--------------------	-------------	--------------	---------------	----------------------

D).- Adierazkortasuna:

1 oso handia	2 handia	3 nahikoa	4 kaxkarra	5 oso kaxkarra
--------------------	-------------	--------------	---------------	----------------------

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

(Genero zehatzen arabera ebaluazio oharrak)

DEBATEA

DEBATE BAT ENTZUN ETA ULERTU

BEHAKETA IRIZPIDEAK:

- Kontrajartzen diren ikuspuntu desberdinak ohartzea (identifikatzea):
 - Modulazio aldaketak ohartu parte hartzaileen artean
 - Debatean barrena ikuspuntuaren aldaketak antzeman
- Erabili diren argumentu desberdinak ohartzea (identifikatzea):
 - Balizko kontraesanak ohartu
 - Debatearen harian, argudioen egokitasuna eta indarra neurtu
- Debatean zehar egin diren aldaketak ebaluatu
 - Ikuspuntuaren arabera
 - Ekarki diren nabardura berrien arabera
 - Aldeko eta kontrako partehartzeak bereizi
 - Hitz txandetan gertatzen diren etenak, arazoak antzeman
- Moderatzailearen papera ebaluatzea
 - Debatearen haserako atalak bereizi (aurkezpena, galdera, partaideen aurkezpena,...)
 - Partehartzeen izaera ezberdinak bereizi:
 - hitza emateko
 - debatea berhartzeko
 - partehartzeak bideratzeko

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

(Genero zehatzen arabera ebaluazio oharrak)

IRAKURKETA OZENA

Elementu neurgarriak:

[bai / ez](#)

- Etenak egiten ikasi. Ipuin bat irakurtzen denean, adi bidez, atalen arabera.
- Elkarrizketak antzeztu, pertsonaien sentimenduei dagokien ahoskera erabiliz
- Entonazioaren bidez testuaren atal ezberdinak markatu
- Esaldietako erritmoa dagokion azentuaren arabera markatu
- Erritmo unitateak ebaki gabe arnasa hartu
- Amaierak ongi ahoskatu
- Esaldien amaieretan ez galdu ahotsa
- Egoerak eskatzen duen indarrarekin ahoskatu ongi entzuten dela ziurtatuz

7.6. Ahozkoaren ebaluaketa

(Genero zehatzen arabera ebaluazio oharrak)

IRRATI BIDEZKO ELKARRIZKETA EDO SOLASA

(KONTUZ NOTA ZEHATZEKIN ELKARRERAGINEAN EKOIZTEN DEN JARDUERA DA ETA. ZAILA BAINA EGIN DAITEKE)

- Solasaren irekiera:
 - gaia aurkeztu
 - elkarrizketatua aurkeztu
 - agurtu
- Galderak gogoratzeko oharrak erabili
- Idatzitik aldendu
- Galderak ulertzeko moduan egin, garbi adierazi
- Gaia mantendu
- Gaiari dagozkion galderak egin
- Solaskidearen erantzuna erabili hurrengo galdera egiteko
- Solaskidearen erantzunak gogoan hartu direla frogatu. Alegia erantzun duen zerbait ez berriz galdetu

[bai / ez](#)

Oharra *estrategia* nozioaz:

- Estrategiaren definizioak
 - Estrategia komunikatiboez → Vilà (2005): helburu berari begira harremanetan dauden eta bata bestearen atzetik egiten diren ekintza multzo batez osatutak operazio motak.
 - Estrategia diskurtsiboez → Larringan (2002): **esperientziaren edo praktikaren ondorioz jarduera mota bati lotuta (debatea, irriati elkarrizketa...) orientazio jakin batekin hitzunak darabiltzan erregulartasun linguistiko-diskurtsibo edo erabilera forma batzuk.**
- Kontuan izan:
 - Etnia, kultura eta abarren arabekoak.
 - Egoera komunikatibo bakoitza bakarra denez, estrategia multzoa egoeraren araberakoa da.
 - Generoarekiko (praktikarekiko) dugun esperientzia erabakigarria da.
 - Askotarikoak, mintza jardueraren araberakoak dira. Genero bakoitzak estrategia prozedura jakinak bideratzen ditu.

Oharra aditz deklaratiboez (verba dicendi)

- **Verba dicendi** (o verbum dicendi) hitzegintzari buruzko ekintzak adierazten dituzte edo uste, hausnarketa edo emozioak adierazten dituztenak (“kexatu zen”, “oihukatu zuen”). Aditz *deklaratzaila* gisa ere izendatuak.
- Baieztatu; onartu; ziurtatu; baietsi ; iruzkindu; azaldu; komunikatu-jakinarazi; adierazi; kontatu; esan; agertu; ; aditzera eman; azaldu; aitortu ; azpimarratu; nabarmendu; aholkatu- aholkua eman; agindu ; agertu-erakutsi; manifestatu; zehaztu ; mugatu; argitu; xehetasunak eman; esan gura izan; argi eta garbi esan; astiro esan; ; erantzun; bat etorri; iradoki; e.a.
- Erabiltzen dira:
 - **Indartzeko, azpimarratzeko, nabarmentzeko:** zerbaiten garrantzia adierazteko, nabarmentzeko.
 - **Ziurtatu edo baiestekeo:** erabateko ziurtasuna adierazteko
 - **Xehetasunak emateko, zehazteko:** aurretik esadakoaren gainean zerbait gehitu, interpretatu edo argitzeko erabiltzen dira.
 - **onartzeko:** bestearen iritziarekin bat egitea adierazteko.

BIBLIOGRAFIA

- BLANCHE-BENVENISTE, C. (1998): "Relaciones entre oral y escrito en la enseñanza", in Estudios lingüísticos sobre la relación entre oralidad y la escritura, Barcelona: Gedisa, 151-176.
- DIAZ DE GEREÑU, L. (2002). Ahoz gora irakurtzea 2Hren irakaskuntzan. In: Helduen Euskalduntzearen IV. Jardunaldiak, Bilbo: EUE; 99- 111.
- DOLZ, J. & SCHNEUWLY, B. (1998). Pour un enseignement de l'oral; Initiation aux genres formels à l'école. Paris : ESF éditeur.
- DOLZ, J., NOVERRAZ, M. & SCHNEUWLY, B. (2001). S'exprimer en français. Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Vol. III, 5e/6e, Bruxelles: De Boeck.
- Florin, A., Braun-Lamesch, M.M., Bramaud du Boucheron (1985): "Pédagogie du langage oral à l'école maternelle", in Florin, A.: Le langage à l'école maternelle, Pierre Mardaga: Bruxelles.
- GARCIA AZKOAGA, I. & DIAZ DE GEREÑU, L. (2009) Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena, EUSKERA 54 (2.zenbakia), 723-770.
- Idiazabal, I. & Larringan, L.M. (2008): "Ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta", IN IDIAZABAL I. & GARCIA AZKOAGA I. (ED) (2007) Ahozko hizkuntza. Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan. UPV-EHUko Euskarazko liburutegintza deialdia (Sareko argitarapena: UPV-EHU) ISBN: 978-84-690-8853-1.
- IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M.(1996) Análisis de estrategias argumentativas en escritos de escolares bilingües del País Vasco.in M. Pérez Pereira (Ed.) Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, euskera y castellano, Universidade de Santiago de Compostela, 425-437
- IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M. (2001) "Berbaldiaren lldotiko Euskalduntzea: Debatea Aztergai". Helduen euskalduntzearen II. Eta III. Jardunaldiak, Bilbo:UEU,41-66.
- Larringan, L.M. & Alegria, A. (2006): Lagunarteko ahozko euskara: deskripzioak, azalpenak eta didaktikarako proposamenak, *XXV. Donostiako uda ikastaroak*, eskuizkribua.
- Luzzati, D. 2004, Le fenêtrage syntaxique: une méthode d'analyse et d'évaluation de l'oral spontané, *MIDL*, Paris, 29-30 [http://www.limsi.fr/MIDL/actes/session%201/luzzati_MIDL2004.pdf].
- RISPAIL, Marielle: "Ahozkoaren metamintzaira baterantz: zer diote ikasleek?" Sareko argitalpena: testubiltzia.